

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/9/16 | 349

Bonberenea Ekintzak
auzolanean
euskal kultura
bultzatuz



Txomin Garmendia eta Eider Elduaian



'Ongi etorri' euskara ikastera



Ernio, urtero irailean aitzakia



G puntua, II. fasea hastear



Manolo Ibargurenekin solasean

Mikropigmentazioa baimendutako zentrua

Fotodepilazioa eta Fotogazteberritzea baimendutako zentrua

Aurpegi eta gorputz tratamenduak
Zimurren aurkakoa, lifting, orbanak, aknea, desbitalizazioa...
Begietarako espezifikoa...

Kabitazioa, zelulitisa, birmoldatzea, UVA izpirik gabeko beltzarantzea...

Eskuzko teknikekin eta elektroestetikoekin eginak.
Azken aurrerapen zientifiko eta teknikoekin.

Begien edertzea
Permanentea eta/edo tintzioa

Depilazio tradizionala, fusio baxua, minik gabeko fotodepilazioa

Oinen eta eskuen zaintzea

Makillajeak

P. OÑATIBIA

e s t e t i k a


txartelarekin ordainduta
%5eko
deskontua

txartelarekin ordainduta*
%15eko
deskontuko txartela

%20eko
deskontua

Promozio hau urriak 31 arte izango da
*deskontu txartel hauek ez dira bonoekin
edo beste promozio batzuekin bateragarriak.

Pablo Gorosabel, 7 - 20400 Tolosa
Tel.: 943 536 971



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

konbinatu
2
2 betaurreko partekatze
97€
kristalak barne

Ekain 2015tik aurrera, 2015/11/15/19 arte. Komunikatu itzazu optikan, kargameneren kargagarriak. Ezin da pribatu beste promozio batzuekin.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonia: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Antton Izaguirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia
Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
Diseinua: Zigor Agirrezabala
GOIKK
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: auzolanean euskal kultura bultzatuz

Bonberenea eraikinaren baitan sortzen diren egitasmoei bultzada emateko 2002an sortu zen plataforma da Bonberenea Ekintzak. Euskal musikari egin dion ekarpena da ezagunena baina, diskoak grabatu eta kaleratzeaz gain, bestelako ekimenak ere antolatzen ditu. Autogestioan eta auzolanean oinarrituta, euskal kultura bultzatzea dute helburu.

8-11. orrialdeak

Bost senideetako hirugarrena, Legazpin jaio zen 1929an. Antzuolan ere bizi izan ziren eta bertan jaio zen bere anaia Kaxiano. Bere aita Lizartzako zentrolean hasi zen lanean. 36ko Gerrak bere haurtzaroa bete-betean harrapatu zuen.

Elkarrietzeta: Manolo Ibarguren

14-16 orrialdeak



Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Eider Elduaen

4-5



'Ongi etorri' euskara ikastera

12



Bidean: Ernio, urtero irailean aitzakia

17



G puntua, II. fasea hastear

18-19

Liburu **berri** bat



Txomin Garmendia
Bertsolaria

4

Zizurkillek badu etxe bat Gipuzkoa guztian oso ezaguna, Fraisoro deritzaiona; etxe ori ia oraintsu arte, ezkondu gabeko amak, aurra izateko eta izkutatzeko izan da. Gaur pentsamoldeak aldatuta badaude ere, garai batean lotsakizun ikaragarria zan ezkondu gabeko neska gazte bat aurdun gelditzea, askotan aita zein zun arrastorik gabe. Dantza-lotuan egin zutelako Maria Alaban kongregaziotik bialduak baziran eta orretatik pentsatu.

Sasiko aur oien jaiotzea eta arazoa, gauaren babesean erreka bazterretan utzitako umee-na eta abar, gizarteak izan dun zoritxarrik penagarriena izan da noski; esan bear da, neska orren gurasoak eta etxeakoak zirala askotan kontrariorik aundienak, alaba etxetik bialtzera-iraiño. Orrelako aur asko, Iruñara eta Zaragozara eramaten omen zituzten, baiña gaurko aurre-raphenik etzanez, asko bidean iltzen omen ziran; beste batzuk, berriz, aur ori gauean ixilka artu

eta aberatsa zan pamili bateko etxe atarian uzten omen zuten; aren negarrakin etxeakoak esnatu eta aur ori jaso zezaten. Again, Iruñara, Zaragozara edo erreka baztarrean utzitakoak baiño suerte ohea izango zun.

Ama oien izate negargarriaz konturaturik Gipuzkoako Aldundiak eta Kutxak Fraisoro deritzaion etxe ori altxa zuten 1903'garrengo urtean. Geroztik, amabi milla aur bai omen dira etxe orretan jaiok; askotan uste izaten degu, pekatu-

klase ori oraingoa bakarrik ote dan; leku ederrean!

Orain, Eba Gartzia donostiar emakumeak liburu berri bat argitaratu digu, "Fraisoroko Amak, Fraisoroko Haurrak" deritzaiona eta liburu orren aurkezpena zan martxoaren 31'an iñulabarrez Fraisoron bertan; ala joan nintzan eta ez bakarrik, orretarako zegon gela jendez gaiñezkatu bai zan.

Delako egille orrek gauz asko argitu zizkigun, liburuak dakazkianak, jakiña; izkutuko gauz asko zegola oraindik etxe orretan ere esan zigun ordea, eta ez da arritzeko.

Ama oiek Fraisoron aurra izanda, aurra bertan utzirik, ezer pasa ez balitz bezela etxeratzen omen ziran asko; jakiña, gero iñudeak bear ziran aur oriei bularra emateko eta abar. 1908'an, "LA CONSTANCIA" egunerokoak onela zekarren: "Hacen falta nodrizas internas para la Casa Cuna Central de Fraisoro". Iñude oiek Aldundiak pagatuta izaten ziran.

Aspaldi batean Fraisoron morroi izan zan batek onako au esan zidan:

- *Ba al dakizu Txomin, zeñiek ez duten aurrik uzten Fraisoron?*

- *Zeñiek?*

- *Ijitoak*

Izan ere, ain dira ume maiteak ijito oiek...

Beraz, aur edo ume paltik etzan izango Fraisoro orretan eta oietako ume bat artzeagatik, eta zazpi urte bete artean Aldundiak laguntzen omen zun. Diru ori jasotzearen ume asko artzen ziran, naiz etxean

iru edo lau izan aurrez. Basarritarra baldin bazan ume ori artu zuna, etxerako gelditzen omen zuten; basarrian ainbeste lan izaten zanez, itzulgintzatik asita. Orrela dira baserri askotan guk ezagutu ditugun sasikumeak. Zazpi urte pasa ezkerro, artutako lekura entregatu ziteken ume ori eta Fraisorotik asko Tolosako Mixarikordira eramaten omen zituzten.

Orra nola aldatu diran gauzak, gaur Txinara, Errusiara eta ez dakit nora, dijoaz aur bat nai duten gurasoak; diru pil ederrak pagatuta gaiñera. Aurre-ratu degula uste, eta atzerako goaz gauz askotan.

Gaur, zarrak eta ezinduak artzeko etxea degu Fraisoro, garai batean ezkon gabeko ama eta andik zetorren aurrentzako zan bezela.

Amabi bertso baditut jarriak gai orri buruz, bear bada, noiz-bait argitaratuko dira. Bi jarriko ditut muestra bezela:

Ezkontz gabeko ekintza aiek bazuten naiko galera, gurasoen asarre latza zan orduko jokaera.

Etxetik kanpo bialtzera iño ama izango zen bera; errugabea zigortutzen zan bere amarekin batera.

Ama oientzat zer lotsakizun umeak aitarik eza, Fraisoro ortan aurkitzen zuten izkutatzeko babes. Nunbait argitaratu bearra zan illunpetako ametsa; beti ixillik gordetzen ere etzan izango erreza.

Hondarribi vs Kontxa

Kale jendetsu eta esan-guratsuenetatik desfilatzea debekatuz, ikusezin egin nahi izan dute konpainia parekidea. Horixe da arazo bat ez konpontzeko, denboran luzatzeko bideetako bat, ikusezin egitea.

Debekuak zer eta segurtasunaren izenean etorri dira gainera. Herritarren segurtasuna kolokan izan bada ordea, ez da izan Jaizkibel konpainiako kideengatik, konponbide erreal batera iritsi ez delako baizik. Eta hamabost urteren ostean, aurten argi ikusi da, azken urteetan barealdia egon dela zirudien arren, arazoak bertan dirauela bere sakontasunean, eta Jaurlaritzak eta Hondarribiko udalak urte hauetan ez dutela ezer egin irtenbide bat bilatzeko. Segurtasuna, guztion eskubideak errespetatzetik etorriko da. Beste urte batez Jaizkibel konpainiako emakume-gizonek argi izpia ezarri dute Betiko alardea zioten txartel beltzen aurrean.

2011ko irailak 11, Kontxako Bandera. Emakume arraunlarien lana eta kuraia-ri hainbat erabaki gehitzen badizkiogu, aurtengoan ikusi dugu nola arraunean gizonezkoen monopolioa apurtuz doan eta emakumeen arrauna ere ikuskizun bihurtu den. Nodedadeak ordea, badu arrisku bat, puztu den bezala hustutzea, eta hori gerta ez dadin berebiziko ardura izango dute

instituzioek, club-ek eta baita komunikabideek ere; borondatean, erabakiak hartzerakoan eta koherentzia editorialean (bereziki salagarria iruditu zait Euskal Irrati Telebista Publikoak, ETB2 telebistak zehazki, igande gauean emakumezkoen arraunari eman zion trataera; minutu erdira ere ez zen iritsi kronika, irabazlearen izena aipatu eta sailkapena nola geratu zen ere ez zuten azaldu...!). Ezin ahaztu emakume hauek astean sei aldiz entrenatzen dutela, eta inplikazio eta ilusio osoa jartzen dutela euren lanean). Ezin bestekoa izango da aurrera begira ere emakume arraunlarietara entzutea eta ahotsa ematea, eta antolatzaileek eta federazioek hauek babestea. Urrats garrantzitsua izan da esaterako, aurten, bi igandetan jokatzea emakumezkoen bandera, gizonezkoen bezala. Ikuskizun ederra eman dute guztiek. Aupa Getari-Tolosa! Eutsi neskak!

Ohiturak eta tradizioak bizirik daude gure herriko kirolatan, jaietan.... Baina ezin ditugu modu hertsian mantendu, jendartearen eman nahi ditugun aldaketekin batera joan behar dute aurrera, gure jendartearen beste adierazpen publiko bat baitira. Birsortu eta aldatzeko gaitasuna izan behar dugu, guk eraikitakoa guk alda baitezakegu. Itsaso zakarrenean ere aurrera neskak! 



Eider Elduaen Olazar
Tolosaldeko Bilgune Feminista

2011ko irailak 8, Hondarribi. Bost urte geroago plastiko beltzak itzuli dira. Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak Jaizkibel konpainiari ezarritako debekuek hauspoa emanda atera dituzte plastiko beltzak. Hamabost urtetan emakumeen eskubideen defentsan egindako lana, egun batetik bestera pikutara bota nahi izan du Herrizaingo Sailak (PSE), Hondarribiko udalaren (EAJ) laguntzarekin.

Aitzol Udal Euskaltegiak matrikula zabalik hilaren 16a bitartean

'Ongi etorri' euskara ikastera

Aitzol Udal Euskaltegiak matrikula epea zabalik du irailaren 16a bitartean. Tolosan erroladatutakoek abantaila ekonomikoa izango dute.

Erredakzioa

Etzeko oinpeko, lanpas baten bitartez eta 'Ongi etorri' leloa hizkuntza ezberdinetan plazaratuz Aitzol Udal Euskaltegiaren 2011-12 ikasturtearen matrikulazio kanpainari irekiera eman diote Mikel Uzkudunek, euskaltegiko zuzendariak eta Iñaki Irazabalbeitiak, Hezkuntza eta Hizkuntza Politika zinegotziak.

Komunikazio kanpainaren helburua "euskaraz bizi nahi duenari ongi etorria ematea da; etxean bezala sentitzea nahi dugu", dio Uzkudunek. Sentsibilizazioa sortuz, gertuko mezua zabalduz, atsegina eta inposatzerik gabekoa.

Ikastaroei dagokionean aurreko urtetan bezala 4, 6, 8 eta 10 orduko moduluak eskainiko ditu euskaltegiak; 1., 2. eta 3. profilei zuzenduak, aurrez-aurreko ikasketa edo autoikaskuntza sistema ahalbidetuz. Hizkuntza eskakizun tituluak -IVAP, Irale, Osakidetza- eskuratzeko preskaketa ikastaroak zein merkataritza eta gurasoei zuzendutakoak ere ez dira falta izango ikasturte be-

rrri honetan.

Aitzol Udal Euskaltegiak iaz 300 bat ikasle izan zituen, aurrez-aurre eta autoikaskuntza formatuetan kopuru berdintsua eskuratuz. Hala ere, hizkuntza es-

kakizun azterketei dagokionean emaitza hobeak eskuratu zituzten autoikaskuntza sistemaren bitartez jardundakoek. Izan ere, Uzkudunen ustetan ikasle hauen profila 'autodiziplina' handiagoa dutenena baita. Ikasle kopuruaz mintzatzerakoan gainera autoikaskuntzak azken bospasei urteotan bilakaera handia izan du Tolosan eta etorkizunean ere bilakaera hau mantenduko denaren ustekoa da euskaltegiko zuzendaria.

Iñaki Irazabalbeitiak euskararekin modu bateko edo besteko

arazoak dituzten herritarrei euskara ikasteko gonbitea luzatu nahi izan die; "euskara ikasi, alfabetatu edota maila hobetzeko". Arrazoiak ordea bihotzekoak (euskal kultura maite izatea, euskaldun izan nahi izatea, bertsolariak ulertu nahi izatea...) zein praktikoak (EGA, lana, seme-alabei etzeko lanak egiten laguntzea) izan daitezke Aralar-ko zinegotziaren ustetan. Hizkuntza Politikako arduradunak hizkuntza bat ikastearen ahaleginak merezi duenaren ustekoa da; "norberaren gogobetetzea





Galtzaundi 349
11ko irailak 16

eta kultura hazteko; beste hizkuntza bat ulertzearekin batera mundua ulertzeko beste leiho batzuk zabaltzen zaizkigu". Zentzu honetan, deialdi berezia egin die "kanpotik etorritakoei" euskarara gerturatzeko; "gure artean errazago eta erosoago bizi ahal izateko, ongi etorria eman nahi diegu".

Funtsezko aldaketak, abantaila ekonomikoak

Tolosako Udalak aurreko legegintzako azken osoko bilkuran hartutako erabakia medio euskaltegian matrikulatzeko garaian ikasleek egin beharreko ahalegin ekonomikoa aurten murriztu egingo da. Lehen izena ematerakoan matrikula osorik ordaindu behar bazen ere, orain portzentaje bat baino ez da zorrotik atera behar izango: %50a aurrez-aurreko ikastaroetan (200 €) eta %25a autoikaskuntzakoe-tan (150 €). Honela, diru-laguntza ikasturte hasieran eskuratu-ko dute ikasleek.

Ikasturtea egunean eraman, gainditu eta bete beharreko baldintzak (asistentzia kasu) konpliz gero laguntza ekonomikoa mantenduko da; egoera kontrakoa bada ordea bide exekutibotik ordainaraziko zaio ikasleari. Dena den, kontutan izan beharra dago, abantaila hauek azken bi hilabetetan Tolosan erroldatutakoek eskuratuko dituztela.

Honela, euskara ikastea denon eskura egotea nahi du Udalak, "dirua ez dadila arazo izan", laburbildu du Iñaki Irazabalbeitiak.

Guraso eta merkatarientzat kanpaina bereziak

Tolosako ikastetxeek eskatuta kanpaina berezia martxan jarri du euskaltegiak ikasleen gurasoei zuzendua; seme-alabekin harremanak euskaraz izan eta etxeko lanetan lagundu ahal izateko helburuarekin. Eskuratutako harrerarekin pozik azaldu da Uzkudun: "ikas-

turte amaieran aurre-matrikula dezente jaso genuen eta oso pozik gaude".

Bestetik, Uzkudunek azaldu moduan euskaltegiak ahalegin berezia egin du ikasturte berriari begira merkatariei dagokionean. Euren "ordutegi zaila" kontutan hartuta, ikastaro bereziak eskainiko dizkie eguerdi eta iluntze aldera. Aipatu eskaintza hau Tolosa&Co elkartearen bitartez helarazi die merkatariei Aitzol Udal Euskaltegiak.

Ikasturte berria beraz irailaren 19an hasi eta ekainaren 22a bitartean luzatuko da. Matrikula egin ahal izateko kontutan hartu beharreko harremanetarako datuak ondorengoak: www.udaleuskaltegiak.net edo www.tolosakoudala.net webguneak. Bestetik, informazio gehiago eskuratu nahi izatekotan 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakien bitartez burutu daiteke.



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegetia kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

Bonberenea Ekintzak au[◁]olanean euskal kultura bultzatuz

8

Karlos Osinaga "Txap" eta Patxi Muñozekin egin dugu Bonberenean hitzordua. Bonbereneako musika estudioko grabaketez arduratzen da Osinaga. Bonberenea Ekintzak plataformako kidea da Muñoz. Bonberenea Txarangak eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsek elkarrekin atera behar duten diskoko grabaketa lanak egiten ari dira egun hauetan Bonberenean eta bertan dira Francis –Doctor Deseo- eta Aiora –Zea Mays- ere, kolaborazio lanak egiteko. Bilboko Errekalde auzoan dagoen Kukutza gaztetxea botatzeko Bilboko alkate Iñaki Azkunak eman duen agindua da guztien ahotan. Kezka, amorrua eta ezinegona nabaritzen dira.

Igor Mujika

Bestelakoak dira Bonberenea Ekintzak plataformaren inguruan galderak egiten hasi garenean sortu diren aurpegi espresioak: ilusioa eta, egindako lanagatik, harrotasuna transmititzen dituzte.

Bonberenea eraikinaren baitan sortzen diren egitasmoei bultzada emateko 2002an sortu zen plataforma da Bonberenea Ekintzak. Euskal musikari egin dion ekarpena da ezagunena baina, diskoak grabatu eta

B³ BONBERENEA ERINTZAK

kaleratzeaz gain, Bonberenea Ekintzak plataformak antolatuta, besteak beste, futbol, skate, eskalada eta saskibaloitxapelketak ere egin dira urte hauetan guztietan Bonberenean. Hala, kolektibo ezberdinei ere esku bat bota diete. Esaterako, Alegiako eta Izaskungo festetan kontzertuak antolatzen laguntzen dute eta Izaskungo festetan Bonberenea txarangak hartzen du parte. "Bultzada kultural bat eman nahi bazaio, bultzakada hori ematen saiatzen gara", Muñoaren hitzetan.

Autogestioa

Autogestioan eta auzolanean oinarrituta, euskal kultura bultzatzea dute helburu Bonberenea Ekintzako kideek. Sei pertsona arduratzen dira erabakiak hartu eta lanak kudeatzeaz. Hala azaldu digu Muñoak: "egitasmoak proposatzen dizkigutenean, bideragarriak diren ala ez aztertzen dugu. Egitasmo txikiei lehentasuna ematen diegu, batik bat etxekoak direnean. Egitasmo horiekin beste era bateko arriskuak hartzen ditugu. Eskaintza asko izaten ditugu baina urte osorako kupo bat dugu. Beraz, urte osoa aztertu behar izaten dugu. Adibidez, 2009an Bonbereneako eraikinean obrak egin genituen eta, ondorioz, bi disko atera genituen. Iaz, 6 lan kaleratu genituen eta, aurten, beste sei aterako ditugu". Aurten, besteak beste, Sputnik 11 CD-a atera



dute Tolosako lau musika talde gazteren lana ezagutarazteko helburuarekin.

Bide berean sakonduz jarraitu du Muñoak: "urtero ezin duzu aritu jende berdinarentzako lanean, guretzako ere ez delako ona. Pertsona ezberdinengana iritsi nahi izaten dugu. Urteak agintzen du eta, beraz, aurkezten dizkiguten egitasmoek inspiratzen digutenaren arabera hartzen ditugu erabakiak. Ez ditugu irizpide konkretuak idatzita; kimika sortzen bada bultzatu egiten dugu egitasmoa. Bakoitzari inspiratzen diona eta lan egiteko hartzen diren konpromisoak izaten ditugu kon-tuan erabakiak hartzerakoan".

Militanteak dira Bonberenea

Ekintzako kideak. Egiten dutenean—euskal kultura bultzatzea eta lan moldean—autogestioa eta auzolana—sinetsita musu-truk ari dira lanean. Bonberenean ikasitakoa Bonberenean jartzen dute praktikan. Gaur landutako haziak bihar eman ohi du fruitua, eta hala egiten dute Bonberenean. Izan ere, Bonberenea eskola modukoa da bertako kideentzat. 12-14 urterekin hasten dira gazteak bertaratzen. Gustuko duten alorrean sakonduz, editatzen, maketatzen, grabazio estudioa aurrera eramaten, musika talde batean parte hartuz instrumentuak jotzen,... ikasteko aukera dute Bonberenean eta, hala, eraikinarene geroa ziurtatzen ari

dira. Egun, bideoklipak, disko grabaketak, edizioak,... egiteko estudioaz gain, internet bidez zabaltzen den irratia, musika taldeentzako entsegu gelak, diseinu grafikorako bitartekoak,... dituzte Bonberenean.

Osinaga bera da garapen horren adibide. 2001. urtean "Oztopo guztien gainetik" diskoa grabatu zuten Bonberenean. Bertan egindako lehen grabaketa izan zen. Osinaga *amateur* modura aritu zen grabazio lanean. Egun, 10 urte beranduago, profesionala da eta ia grabaketa guztiak bertan egiten ditu. Bere esanetan, Bonbereneako grabazio estudioak, "berezi-tasun kontzeptuala du. Estudio bezala nahiko *underground*-a



da. Nik gustokoa dut. Xarma berezia du. Badakizu bertakoen artean eraikia izan dela eta hori oso magikoa da. Disko bat grabatzerakoan une magiko horiek lortu behar dira. Leku bat bestea baino aproposagoa izan daiteke eta hau oso magikoa da. Garrantzitsuena ez da gela, etxe osoa baizik. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritakoez gain, Zaragozatik, Bartzelonatik, Madrildik,... ere etortzen dira musika taldeak eta hemen lo egiteko aukera,... izaten dute. Ez da estudioa bakarrik, txoko honek esperientzia oso bat izateko aukera eskaintzen du”.

40 erreferentzia

Bonberenea Ekintzak plataforma euskal musika zabaltzeko egiten duen lanagatik da, batik bat, ezaguna. Diskoak grabatzeko, editatzeko eta kaleratzeko aukera eskaintzen du, besteak beste. 2001. urtean sortu zuten Bonbereneako grabazio estudioa. Obretatik egurrak hartuta hasi ziren grabazio estudioa eraikitze lanetan. Bertan grabatutako lehen diskoa, “oztopo guztien gainetik” izan zen. Ordutik 40 erreferentzia inguru sortu dira, tartean, oso ezagunak: Ama Say, Zea Mays, Peti,... Hain justu, datorren urtean Bonberenea Ekintzak plataforma sortu zenetik 10 urte beteko direla-eta, urte hauek lan baten inguruan biltzea helburu duen CD bikoitza kaleratuko dute. Bertan, batetik, Bonberenean eskainitako kontzertuetako kantuak jasoko dira -15 talde, bakoitzaren kantu bat-. Bestetik, Bonberenea Ekintzakek atera dituen disko guztietatik kantu bat hartuz bilduma egingo dute.

Bada lehenago kaleratuko duten sormen lanik, ordea. Hilabete honen bukaeran, Eneko Barberena idazle arrasatearrak idatzitako 40 poemaz eta CD batez -10 poema musikari ezberdinek musikatu dituzte- osatutako lana kaleratuko dute. Tolosan, Bonberenean azaroan egingo duten literatura astean aurkeztuko dute aipatu lana.

Urriaren 29an, berriz, Bonberenea Txaranga Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera grabatzen ari den diskoa aurkeztuko dute. Muñoak aurreratu digunez, Tolosako txaranga ezberdinetako partaideei eskaini-

tako lana izango da eta kolaboratzaile askok hartuko du parte: Doctor Deseoko Francis, Zea Mayseko Aiora, Su Ta Garreko Aitor, Deabruakeko Aritz,...

Autoekoizpena

Osinagak azaldu digunez, Bonberenean “auto-ekoizpenak egiten dira. Auto-ekoizpenak taldeari bere produktuarekiko botere eta kontrol gehiago ematen dio, zuk erabakitzen duzulako, besteak beste, zurea den produktua non eta nola banatu, sustatu,... Txikiago ere bazara eta leku batzuetara ezin zara iritsi,... baina niretzako hori da handiena, norberak bere produktuaren kontrola izatea”.

Illo horretan, euskal musikaren inguruan dagoen industriaren aurrean, Bonberenea Ekintzakek auto-ekoizpenaren aldeko hautua egin duela azaldu digu Muñoak. “Bonberenea Ekintzak ia duela hamar urte sortu zen eta, gerora, bide bera jarraitzen duten Arto Artian, Bide Huts,... sortu dira. Izan ere, guri ezinezko zitzaigun, eta ez zen gure nahia ere, hor zegoen hutsunea abarkatzea”.

Muñoak esplikatu digunez, Bonberenea eta taldeen arteko harremanean biek irabazten dute: “etxeak eskaintzen duen azpiegituratik eta gaitasunetik ateratzen du taldeak onura. Etxea, berriz, taldearen bitartez indartu egiten da. Esaterako, Zea Maysek Bonberenean kontzertua eskaintzeak etekin ekonomikoak ematen dizkigu. Halaber, gure izena zabaltu egiten du”. Izan ere, Bonberenean eskaintzen diren kontzertuetan sarreratik ateratako dirua taldearentzat izaten da. Zuzeneko

B⁹⁹ BONBERENEA EKINTZAK

emanaldiak eskaintzen diren aretoan dagoen barratik ateratzen diren irabaziak, berriz, Bonberenearentzat izaten dira.

Zea Mays moduko talde eza-gun batek Bonberenea Ekintzaken bitartez bere lana zer dela eta kaleratzea erabaki duen galdetu diogu Muñoari eta argi azaldu digu bere ustea: "gure lana serio egiteak eta gure artean dagoen laguntasunak erakarri du Zea Mays Bonberenea Ekintzakera. Zea Maysek Bonberenean 8-9 aldiz jo du. Egun olatuaren gauean daude, 6 disko eta 15 urteko ibilbidearen ostean. Pentsatzeko nahiz gauzak egiteko moduan gure artean antzekotasunak ditugu".

Euskal Herriko nahiz nazioarteko talde asko igaro da urte hauetan guztietan Bonbereneatik. Horren erakusle, ondoko datua bota digu Muñoak: "astero bost-sei korreo izaten ditugu kontzertuak hemen emateko eskakizunak eginez. Idazten diguten talde guztiei aukera hori ematen saiatzen gara baina urritik ekainera 90 kontzertu izaten ditugu eta, tartean, talde ezagunak ere sartu behar izaten ditugu, azken finean, ekonomikoki kaudimena ematen digutenak direlako. Oreka mantentzen saiatzen gara, autogestioa garatzeko".



Etorkizuna

Muñoak esplikatu digunez, "guk taldeei aretoaz gain, duintasunez jotzeko musika ekipoa, afaria eta lo egiteko lekua eskaintzen dizkiegu. Taldeek baldintza onetan jotzen eta hemendik gustura joaten saiatzen gara". Eta bertatik pasa diren talde horietariko askorekin landu dute laguntasuna Bonberenea Ekintzak plataformako kideek.

Muñoaren iritzian, "egin duen lanagatik Bonberenea Ekintzak ezagunagoa da Durangon, Bilbon edo Gasteizen herrian bertan baino. Inor ez da profeta bere herrian, norberaren herrian bikoitza demostratu behar izaten delako. Bonbereneari hori gertatzen zaio. Aiorak bost mila aldiz esan digu: ezkaratzetik atera eta, nire beharrak asetzeko, horrelako txoko bat 10 minutu-

ra izatea gustatuko litzaidake". Egun, ordea, Tolosara etorri behar du horretarako, besteak beste, etorkizunean aukera hori eskaini ahalko zion Kukutza gazetxea botatzeko mehatxupean delako. Ildo horretan, azken hauteskundeetan haize kolpea jaso dutela aitortu du Muñoak. Izan ere, aurreko Udal Gobernuak bertarako zituen egitasmoen ondorioz, arriskupean ikusten zuten euren etorkizuna Bonbereneako kideek. Bide horretan, oraingo Udal Gobernuari Bonberenearen etorkizuna behin betirako ziurtatzeko eskatu dio Muñoak. Bertan egin duten lana aitortzeko eta etorkizunean ere autogestioa eta auzolana oinarri hartuta Tolosan euskal kulturaren aldeko lana egingo dela bermatzeko modua izango litzateke.

Galtzaundi 349
11ko irailak 16

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Banaiz Bagara eta Jatorkinen arteko lankidetzaz

“Lanean euskara ikasi”, e hizkuntzara gerturatuz

Euskaigintzan ezaguna den Petra Elser-ek gidatutako *Banaiz Bagara etorkinak euskaraz* elkarteak Tolosan lanean hasi da Jatorkin, etorkinen aldeko elkartearekin batera. Proiektu pilotu honen bitartez langabezia edo lan egoera ezegonkorrean dauden etorkinei euskarara lanaren bitartez gerturatzeko aukera bat ematen zaie. Eskualdeko herrietan salmenta postuak jarri eta euskaraz jardungo dira. “Lanean euskara ikasi” proiektuaren lehen bilera ospatu den honetan Petra Elser eta Saad Malec Subeir-ekin elkartu da Galtzaundi nondik norakoen berri izateko.

Naiara Roldán de Aranguiz

Proiektuak euskarazko salmenta lantzen du, hau da, merkatu txikietan postu bat antolatu eta bertan salmentak egitea bilatzen du, euskarazko komunikazioa jorratuz, ekintza aktiboa garatuz. Horretarako, ordaindutako praktikak eskaintzen zaizkie parte hartzaileei.

Banaiz Bagara elkarteak euskaltegi ohiko sistema-ri alternatiba eskaintzen dio, ikaskuntza formula berriak plazaratuz, bereziki etorkinei eta haiek pairatzen dituzten baldintza bereziei egokitu. Helburuetako bat gainera parte hartzaileak euskal gizartearen, herriko bizitzaren gizarteratzea da. Honenbestez, proiektuaren prestatzeko garaian, euskara eta lana uztartzea ezinbestekoa ikusi zuen Petrak: “jendeak euskara ikasteko pausua eman dezan, lanarekiko motibazioa ezinbestekoa da. Lana lehen-tasuna da”.

Proiektuak dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxaren babesa jaso du eta baita Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalaren laguntza ere. 5 hilabeteko iraupena izango duen honek, lehen hilabetearen 12-16 parte hartzaileei Tolosako Kultur Etxean astean behin ikastaroa eskainiko die. Bertan, ondoren burutuko den merkataritza ekintzarako prestatuta, hiztegi erraza, ahots-jokoak, hitz-arietak eta bestelakoak landuko dira. Petrak azaltzen duen bezala, lehen momentutik euskaraz hitz egitean dago gakoa, ausartzea eta askatzea.

Ondoren, urritik aurrera ekintza praktikoari, lanari ekingo zaio. 4 pertsonen osatutako taldeen bitartez herriko azoketan parte hartuko dute objektu ezberdinen aurrez-aurreko salmentarekin. Produktuak Banaiz Bagara elkartearen materiala (kamisetak, aterkiak, agendak...) zein euskaigintzako edota euskal produkzioa jorratzen dute enpresa ezberdinek oparitutakoa –Irrien Kluba kasu– izango dira.

Dagoeneko lehen ikastaro eguna ospatu dute Tolosako Kultur Etxean eta bai Petra, Saad eta Khalid parte hartzaileak ere pozik azaldu dira bertan jasotako sentsazioekin. Khalid-ek “herrialde honen hizkuntza ikastea” gustuko duela dio: “kalerara atera eta euskaraz jakiteak lagunduko dit. Egon badago jende heldua gazteleraz mintzatzea kostatzen zaiona”.

Saad-ek ordea, horrela laburbiltzen du lehen esperientzia: “jendea gogoz ikusi nuen, euskara ikasteko gogoz, zerbait egiteko gogoz, jende berria ezagutzeko gogoz, euskaraz hitz batzuk esateko gogoz”. Bertan 9 parte hartzaile –ikasle ezin esan, Petraren metodologiak ikasle-irakasle paperekin

etorkinak

apurtu nahi baitu- bildu ziren, adin eta nazionalitate ezberdinekoak. "Herrian integratzeko euskara beharrezkoa dutela argi dute guztiek", dio Jatorki-neko ordezkariak.

Hizketaldian aurrera egin eta Saad-ek gogora ekartzen du proiektuaz lehen aldiz entzun zueneko momentua, Petrak inmigrazioa eta euskararen inguruko jardunaldietara Andoainera gonbidatu zitueneari: "Petraren metodologia gustatu zitzaidan, ekintza aktiboak lantzen dira. Argia piztu zitzaidan; ez dira klase trinkoak".

Erabilitako metodologia

Petrari bere metodologia definitzeko eskatu diogu hortaz, euskalgintzaren baitan horren ezagun bilakatu dena. Berak argi dauka: "Metodologia honek gauza oso konkretu batez hitz egiteko motibazioa sortzen du, kasu honetan lana. Jendea parte hartzera bultzatzen du, parte hartzaileen berezko inplikazioa da, gutxika parte hartzailea hizkuntza bereganatzen doa, lehen momentutik hitzak adieraziz. Hitz egitea da garrantzitsuen, hiztegia ezagutzen den aldi berean edo esaldi bat egiten

jakiten den momentu berean. Guretzat nahitaezkoa da lehen momentutik hizkuntza sentitzea".

Ahozketasunak pisu nagusia hartzen du etorkinei bereziki zuzenduriko metodologia honetan. Esaterako, abestea erabilitako tekniketako bat baino ez da: "ezagutzen ez diren hitz eta esaldiak adierazteko oso forma egokia da; esanahia jakin gabe, era oso naturalean barneratzen dira. Beste hizkuntza bat sentitu eta bere kulturaren barneratzeko modu bat da", dio Petrak. Izan ere, jaiotzez alemana den emakume honek hausnartu bezala gehienetan bestelako kultura batera gerturatzea ez da intelektualki, era arrazionalen egiten, eta sentimenduak tartean direla baizik.

Saad-en ustetan etorkinak egun Tolosaldean euskaraz ulertu eta mintzatzeko gai izan ezean erabat baldintzatuta daude eta integrazioa ere mugatuta dute: herriko festetan edo kultur jardueretan parte hartzea, bileretan parte hartzea, seme-alabei

etxeko lanekin laguntzea... Hori horrela izanik Saad-ek argi dauka: "Euskara integratzekoaren motorra da".

Horrenbestez, "Lanean euskara ikasi" bezalako proiektuak beharrezkotzat ditu Saad-ek: "euskaltegira iritsi baino lehen bestelako pausu bat egon beharra dago; sarrera bat, lehen kontaktu bat. Etorkin gizartea euskaldun gizartera gerturatzeko lan egitea beharrezkoa da. Heldu berri den jendea egoeraz ez da kontziente". Gauzak honela, etorkin gizartea euskaldunera gerturatzeko tankerako ekimenak txalotu besterik ez dago.



Galtzaundi 349
11ko irailak 16



Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa



HAURRAK ETA HELDUAK

www.sartutasortu.blogspot.com

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685



Mintzalaguna
egitasmoan
izena emateko
aukera zabalik da

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

“Korroan izaten zen gustukoena; halaxe neskari eskutik heltzeko aukera zegoen eta”

Manolo Ibarguren

Eskusoinu teklatuen gozamen dotorean

Bost senideetako hirugarrena, Legazpin jaio zen 1929an. Antzuolan ere bizi izan ziren eta bertan jaio zen bere anaia Kaxiano. Bere aita Lizartzako zentrolean hasi zen lanean. 36ko Gerrak bere haurtzaroa bete-betean harrapatu zuen eta 14 urterekin umezurtz geratzear, gerra oste latzari aurre egin behar izan zion, morroi lanetan hasita. Horrelaxe, bere kasa hasi zen soinua jotzen. 16 urterekin lauzpabost pieza ikasi eta Lizartzako plazan soinua jotzen zuen. Gero, Gazteluko festetan lau egunetan aritu ondoren, Tolosaldea, Araitz bailara, Ereñozu, Aia eta Euskal Herriko beste hainbat herritan bere soinuaren teklatuak dotore astinduz, jendea dantzan jarri izan du.

Felix Aiestaran

“Manolo haundie”-k soinuaz gozatu eta egunero jotzen du, gaur egun ere lizartarren ospakizunetan bere soinua tartean izaten delako. Manolok Santa Katalina elizako ospakizun guztiak organo doinuaz betetzen

ditu, bera baita elizako organo-jolea Kaxiano hil zenetik. Beta duenean eskusoinuari heltzen dio. Duela 18 urtez geroztik herrian Egaña eta Lizasorekin egiten duten bertso afariko tartear ere bere soinuaz alaitzen ditu. Askoren oroimeneko irudietan ager-



tzen den modura, Manolok dotore heltzen dio soinuari.

Noiz eta nola hasi zinen soinu-a jotzen?

Beti izan nuen soinurako gogoia. Morroi nintzela, soinu ttiki bat sortu eta nire kasa hasi nintzen ikasten. Eugenio Mendia elizako organistarekin aritu nintzen zer edo zer. Partitura irakurtzeko denbora behar dugu, baina belarriaz moldatzen gara. Aitaren pianoa bagenuen etxean eta haren truke, soinu handia esku-ratu nuen. Soinujole asko ez ziren garai hartan eta dozena erdia pieza ikasi orduko hasi nintzen plazan jotzen. Garai hartan soinujolea estimatua zen eta lagun ugari egin n-tuen.

Non jo zenuen lehendabiziko aldiz?

Lizartzako plazan jo nuen 16 urterekin jai arratsalde batean, lauzpabost pieza ikasita. Gaztetan aise aritzen nintzen. Gero, Gazteluko festetara lau egunez joan nintzen eta gogoan dut gizendu eta guzti egin nintzela. Tomaseneko mandio galantan aritu nintzen. Gose pixka bat bazen garai hartan...

3.000 pezeta balio zuen soinu-a erosteko, 10 duro astean irabazita, zerbait uko egingo zenion, ezta?

Nik, jaietan gastatu beharrean, dirua ateratzen nuen. Lehendabizikoa Larrinaga handia izan zen, bigarrena Kaxianok erabili zuen Larrinaga urdina izan zen, hirugarrena ikaragarri doinu fina eta gehien erabili izan nuen Paolo Soprani beltza izan zen, honek teklak ere gastatuta dauzka... Gero gogokoa izan ez nuen Larrinaga gorria ere izan nuen.

Hau Ereñotzun uzten nuen soinu-a gainean nuela harantz eta honantz ez ibiltzeko. Portuan kamioarekin karga-deskargan ari nintzela semearentzako Honner alemana erosi zuela eta ez zuela hartzen eta... hura ere erosi nuen. Soinu fina hura ere...

Non aritzen zinen soinuarekin?

Plazetan eta ezkontzetan ere bai. Ezkongaietako baten baserrian izaten ziren ospakizunak. Lepo gosalduta eta dantzaren hasten zen jendea; hurrengo egunera arte luzatzen zen festa. Gero, jatetxeetan egiten hasi ziren ezkontza ospakizunak. Lizartzako Larrene, Agirrebarrena eta Laxaroene, Laskibar, Amasako Arantzadi, Benta Aundi, Alegiako Errota... eta bestetan aritua naiz. Edozein tabernetan ere bai, garai hartan ezkontzak 30 lagunekoa izaten ziren eta. Inguruko herri guztietan dezente jo nuen 40 urte bete arte. Ereñotzun ere ia jaietara jotzen nuen 1956tik 1964ra. 40ren bat urte nituela Aia aldera joaten nintzen Lambretta motoa hartuta. Goizeko hiruetan etxeratu eta seiatarako lanera joan behar izaten nuen.

Taldean jo al zenuen?

Izenik ez genion jartzen, baina saioak han-hemen egiteko musikari batzuk elkartzen ginen, besteak beste, Manolo Ropero saxofoi-jolearekin. Errepertorioa ez genuen batera entseatzen... pasodobleak, balsak, sueltokoak.... bateratsu aritzen ginen.

Soinua jotzea eta lana uztartzea zaila izango zen, ezta?

Gaztetan denari egiten zaio aurre. Goizeko erreleboa zenean etxera bueltatu ordu-



"Lizartzan ere balsekoak plazan behean aritzen ziren eta sueltokoak goian, eliza atzeko plazan"

ko lanera atera behar izaten nuen... Lehenik, Insalusen aritu nintzen, baina soinu-a jotzeko lankideekin txandak aldatzeko aukera handiagoa nuela 'papeleran' eta Txaraman hasi nintzen. Azkenik, 'papelerako' lana eginez kamioarekin hasi nintzen, nire kasa.

Zer ekarriko zenuke garai haietatik gaur egunera?

Aulkia mahai gainean jarri eta azpian ardo botila bazen, hantxe aritzen ginen. Orduan ez zegoen bozgorailurik, egu-

rra eman beharra zegoen. Soinua ireki orduko jendea dantzaren hasten zen. Gaur egun, kristoren taldea jotzen hasi eta dantzaren inor ez da arituko.

Dantza helduta egitea bekatua zen garai hura latza izango zen, ezta?

Halako batean balsa joz gero berehalaxe izaten genuen alkatea gainean. Lizartzan ere balsekoak plazan behean aritzen ziren eta sueltokoak goian, eliza atzeko



"Orduan, soinua ireki orduko jendea dantzan hasten zen."

plazan. Ni goian aritzen nintzen 'zuriekin' suelta jotzen eta anaia, berriz, behean 'gorriekin' balsa jotzen. Izan ziren kiosko ondoan begira egoten ziren apaiza eta alkateak ere. Batzuk, Tolosara ere joan behar izaten zuten mezetara, helduta dantza egin zutela eta apaizekin izandako sesioa zela medio. Goikoak behera jaitsita konpondu zen. Denei gustatzen zaie lotua dantzatzea... Lotua eta suelta dena behar da. Korroan izaten zen gustukoena; halaxe neskari eskutik heltzeko aukera zegoen eta. Bestela ez zegoen ezer egiteko modurik.

Zer jotzen zenuten garai hartan?

'Qué felices seremos los dos', 'Dame un besito amor'... moduko kantak jotzen genituen, batez ere balsak eta pasodobleak. Gaur egun ere entzuten dira. Plaza bete jende egoten zen. Dantzarako joera handiagoa zegoen. Gehienak erdaraz izaten ziren.

Noiz hasi zineten euskaraz kantatzen?

70. hamarkadan aurreratu hasi ginen euskaraz kantatzen.

Jendea mugitzen al zen festaz festa?

Oinez mugitzen zen jendea

eta ezin zen urrutira joan. Bizikletan ere hasi zen mugitzen... Behin, Zarautzeko San Pelaion jo behar nuela eta, Atalloarra hartu, trolebusean Lasarteraino joan eta Zarautza trenetara joan behar izan nuen... Ez neukan erraza batetik bestera ibiltzea. Kamioian ere batera eta bestera ibili izan ginen, noiz iraulliko ginen beldurrez. Motoa lortu nuenean ondo moldatu nintzen.

Bitxikeriaren bat...

Gaztelutik jaisteko gaez lastargia eskutan jaisten nintzen eta hura piztuta zen artean ikusten nuen, baina zen-

bat aldiz euria zela edo itzali, eta ilunpetan ibili behar izan nuen 'bidetxurretan'. Gazte ginen eta akordeoiak ere ez zuen pisurik guretzat mugitzerakoan.

Zerk eragin zuen erromerien jaitsiera?

Leku itxiak gailendu zirenean, erromeriak jaitsi ziren. Phaeton, Thunders, Maithuna, Malloak, Gure Txokoa...

Kaxianoren anaia izateak zertan eragin dizu?

Musika kontuan ezer gutxi. Kaxiano eta biok elkarrekin aritu ginen, Aiako San Pedro, Berrobi edo Lizartzan bertan, ezkontza batean edo bestean ere bai... Bere ordezkapenak ere egin nituen. Braille sistemaz ikasi eta bere kasa osatu zuen bere musika ibilbidea. Bera beste maila batean aritzen zen. Ni tarteka aritzen nintzen modura, bera erabat musikari lotu zitzaion.

Gaur egun ere jotzen aritzen zara...

Etxean entseatzen dut ahal dudanero, betiko pieza zaharrak. Afariren bat dela edo beti jotzeko aukera izaten dut lagun artean. Bertso afaria izan edo bodega bisita hortxe izaten naiz. Mikel Olaetxeak txapela irabazi zuenean ere sagardotegian ospatu genuen, eskusoinuarekin, noski.

Elizako organista ere bazara...

Kaxiano aritzen zen, baina bera hil zenetik neroni aritzen naiz, organoa jotzea ere polita baita. Organoak ere badu konponketa baten premia. Bestela, organo dotorea da, Arantzabeneko Urdanpilleta apaizaren dohaintza izan zen.

Ernioko
tontorra
1076 m.

Agoniako
aldapa

Pista

Lizarbakarra

Pinudia

Pagadia

Olamunoko
Antena

Malaka
baserria

Martin txiki
baserria

Argaia
baserria

Berrano
baserria

Tolosa
(76 m.)



Iosu Iztueta
Bidaiaia

Bidean Ernio, urtero irailean aitzakia

lehen ere baziren mendi lasterkeriak, (1944ko irailaren 11n Joxe Mari Urteagak 2 ordu 7 minutu 41 segundo behar izan zituen, Tolosatik abiatu gurutzeraino iritsi, eta atzera Tolosara bueltatzeko). Gaur egun ugariak dira Mendi Maratoiak, Kilometro Bertikalak eta antzekoak. Orduko denborak meritu handia dute eta normala denez, denbora horiek asko hobetu dira. Bitxikeri moduan, 2003. urtean Juan Mari Garin korrikalari ezagunak 1:30:14an utzi zuen, 2005ean Fernando Etxegaraik 1:26:32an, bi urte beranduago, korrikalari berak, hobetu ezina zirudiena berriro hobetu zuen 1:24:44... hau da gaur egungo marka. Bi urtez behin antolatzen du Aralarko Adiskideak Elkarteak eta duela astebeteko frogan Lizeaga irabazleak 1:30 inguru egin zuen eta Nerea Amilibiak emakumezkoen denbora ondu zuen 1:47 eginaz...

Hemen proposatutako txangoak, lasterketa horretarako markatzen den bidea azaldu nahi du, ustez motzena baina baliteke ez azkarrena izatea, eta noski politena ere ez dauka izan beharrik... bide bat ederra eguraldiak, lagunarteak, norberak egingen du!

Triangulo plazatik tira Soldadu kaletik zuzen, pasa trenbidea zubi gainetik eta aurrerago jo ezkerretara garai bateko harrobi aldera (azkar jarri gara Santamaria eliza dorrearen alturan) Elozegi parke aldamenetik ezkerretara aldapa pikoia segi eta asfaltoa hartuko dugu Berrano baserriaren parean. Hauspoe berotzeko ordu laurdana nahikoa.

Monteskura doan bidegurutzera eskuinera utzi eta jarraitu zuzen bide

zabalezik, Argaia baserriaren aldamenetik S itxurako bihurgunea egin ('ataju' bat badago pinuditik baina ez du hartzerik merezi), hurrengo baserria Martin Txiki (Bertako Pedro Zuzuarregik lortu du aurtengo Ordiziako Gazta lehiaketan 5.saria), aurrerago ehiza postuak hasten dira bidearen goialdean, 19 zenbakiduna da lehenengoa, gutxira azpialdean etxe berria ari dira eraikitzen, 25. ehiza paradan Malaka baserrira doan bidegurutzera utzi eta heldu mendi bideari. Honainoko azken kilometro erdian bista ederrak daude Errialde eta Beterri aldera.

Urkizu 2.3 km jartzen duen postea dago, gaurkoan hartu pagadian zuzen doan bidezidorra, gero gurdibidea, langa pasa... leku berdintsura eramango gaituen bide bat baino gehiago dago, aukeratu zapalduena. Pinudian gora eta pista batera iritsiko gara. Deskantsu oneko bidea da kilometro batez, bi mendi magalak bat egiten duten lekuan dago Udetaiturria, zeharka maldan gora joan pinu artetik, Olamunoko antena parean gaude, ataka pasa eta basotik irtengo gara. Paraje honi Zelai Txiki deitzen diotela entzun dut baina askok Lizarbakarra esaten diote, hantxe dagoen arbola nabarmen bakarrik dagoelako izango da noski. Arrasto zuri horiak dauzka, Urkizu auzotik datoz markok eta Erniozabalera eramango gaituzte. Eguraldia lagun izanez gero, garbia eta laino arrisurik gabea, gainez gain Ernioraino joateko bide polita da honakoa... guk erdi ezkutuan dauden aska ondotik alanbre sarea pasa eta pistari jarraituko diogu. Berriro beste kilometro bat zelai antzera, -horrek zer esan

Urteroko zita da Ernio Tolosaldeko askorentzat. Zita horrek gainera egun jakinak ditu, hilabete honetako igandeak. Baliteke iraileko igandeotan Ernio mendira urte osoan baino jende gehiago igotzea.

nahi du? - nonbait irabazi beharko dugula altuera... eta hantxe errebuelta moduko batean zuzen-zuzen non hasten den Agoniako aldapa!

Basotik atera bezain laster, Bidegoian, Errezil, Azpeitia herriak bistan, Izarraitz mendia aurrez aurre, suerte pixka batekin Bizkaiko Anboto eta Gorbeia tontorrek ere ikus daitezke... Baino non kristo dago Ernioko gurutzehori?

Bideak batzuetan belardiak, bes-tetan pagadiak edo otadiak pasatzen ditu, beti gorako joeran baina tarteka metro batzuk galduz. Ez dugu denbora askoz gehiago beharko 1947an eraikitako gurutze erraldoia non dagoen jakiteko eta dozenaka txiki non jarri diren asmatzeko.

Tradizioa, ohitura, fedea, festa, aldarrikapena... denetarik izan du eta du Erniok.

1997. urtean gurutzearen 50. urteurrena ospatzen zela eta Erniozaleak Kultur Elkarte sortu zen. Ernio inguratzen duten zortzi herrietako biztanleen ekimenez konpondu zen erdi erorian zegoen borda, argitaratu zuten liburua, bi urtez behin antolatzen dute Erniopeko martxa...

Zuekerabaki deskribatutako bidea hartu edo ez baina aurtan oraindik garaiz zaudete Ernioko zitari eguna jartzeko. 1:24:44ko denbora ahaztu eta Zelatungo giroa disfrutatu.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren
finalaurrekoetako bat Tolosan lehiatuko da

G puntua, II. fasea **h**astear

18

Irailaren 17an ekingo
zaie Gipuzkoako
Bertsolari Txapelketaren
final-zortzirenei.
Jarraian final-laurdenak,
finalaurrekoak eta finala bera
iritsiko dira. Tolosako Usabal
kiroldegia, azaroaren 27an,
finalaurreko garrantzitsu
horietako baten kokaleku
bilakatuko da 2.000 entzule
eskuratze helburuarekin.

Naiara Roldán de Aranguiz

Tolosako finalaurrekoa heldu bitartean lan gogorra dute aurretik gipuzkoar bertsolariek. Izan ere, irailaren 17an hasi eta urriaren 9a bitartean final-zortzirenen faseari ekingo zaio. Bertsolariek Andoain, Azkoitia, Eibar, Lazkao, Egoibar, Lasarte-Oria eta Iruneko oholtzak, entzuleak eta epaimahaiak probatu beharko dituzte.

Final-laurdenak urriaren 22an hasi eta azaroaren 6a bitartean luzatuko dira; Oñati, Villabona, Hondarribia, Idiazabal eta Azpeitia izango dira herri aukeratuak. Finalaurrekoei dagokionean Arrasaten (azaroak 20), Tolosan (azaroak 27) eta Hernanin (abenduak 4) ospatuko dira. Final nagusiaren ospakizuna abenduaren 18an Donostian izango da.

Ikusle kopuruari dagokionean antolakuntzaren helburu nagusietakoa da "saioz kanpo ikuslerik ez geratzea". Hori dela eta,

hasierako saioetarako 300-400 ikusle sartzeko moduko aretoak aukeratu badira ere, final-laurdenetatik aurrera kiroldegi eta pilotalekuak izango dira hautatuak zifra horrek nabarmen gora egin dezan. Antolakuntzak adierazi bezala Tolosa horren adibide izango da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa honetan, izan ere, entzule ugari espero da saio horretarako -2.000 inguru-. Donostiako Illunbe zezen plazan jokatu den finalerako ordea 10.000 bat ikusle aurreikusirik daude.

Sarrerak eskura

Sarrerei dagokionean bertsozaleak eskura izango ditu www.gpuntua.com webgunearen bitartez saio bakoitza hasi baino astebe-te lehenagotik. Bertsozale fidelenek gainera eskaintza berezia izango dute aipatu webgunearen bitartez; txapelketako saio guztiak ikus-

teko bonoak %50etik gorako deskontua izango du eta.

Helburuak

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren II. fasea hasiko den honetan antolakuntzak sailkapen fasearen inguruko balorazioa burutu nahi izan du eta adierazi modura alde zuretik zehaztutako helburuak bete dituelako pozik azaldu da: herri txikietara txapelketa helaraztea, bertso eskolekin harremanak sendotzea, bertsolari berriei bi saioetan kantatzeko aukera ematea eta fase arteko galbahea zabaltzea, besteak beste.

Final-zortzirenen eta finala bitarteko saioek ordea bestelako helburuak ezarri dizkio antolakuntza taldeari. Abendua bitarteko tarte izango du beraz honakoak eskuratzeko:

bertsozale guztientzako moduko saioak antolatzea, saio erakargarriak izatea, txapelketaren aitzakiara bertsolaritza esparru berrietara zabaltzea, bertsolariekin harremanak sendotzea eta euren iritzia ezagutzea. Azken xede hau lortzeko helburuarekin txapelketak www.gpuntua.com webgunea ardatz izango du. Bertan, antolakuntzak adierazi bezala "informazio eguneratuen biltzeaz gain, blogaren eta sare sozialen bidez entzuleekin harremanak lantzea izango da erronka eta ilusioa".

Sintonia berria

G puntuaren berri behar



bezala emateko helburuarekin komunikazio kanpaina berezia martxan jarriko da: txapelketaren aldizkariaren argitalpena, saioen eskuko mapa, pegatinak, bideoa eta baita sintonia berria ere. Datozen egunotan komunikabideetan entzungai egongo den sintonia berriak Elkano Browning Creamen doinua, Antzuolako Sasibertsolaixak Bertso Eskolaren letra eta Gari abeslariaren ahotsa uztartzen ditu. Sintoniaren sorkuntza-metodologia Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren helburuekin bat egin nahiarekin esparru berrietara hedatzeko ahaleginaren adibide bilakatuko da.



Eskualdeko ordezkariak

Final-zortzirenetarako sailkatutako 32 bertsolarien artean eskualdeko Adur Gorostidi bertsolari gaztea arituko da. Abaltzisketarrak bere onena erakusteko data izango du irailaren 25a. Izan ere, Lazkaon ospatuko den saioan Nahikari Gabilondo, Beñat Lizaso, Beñat Iguaran eta Iban Urdangarinek taula gainera igo beharko du bertsorik onenak eskaintzeko helburuarekin.

Villabona-Amasak ere ordezkari bikotea izango du aipatu final-zortzirenetan: Beñat Iguaran, Oihana Iguaran. Eurekin batera aurretik sailkatu diren Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu eskualdeko eskarmentu handiko bertsolariak jardungo dira.

Galtzaundi 349
11ko irailak 16

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04

BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

matilda

zure moda osagaien denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com



irakurri entzun lkusi

Pozik

Egile eta ilustratzailea: Mies van Hout. Itzultzailea: Ihintza Elsenaar

Mundura sortzen garen unetik, sentimenduak ditugu. Batzuetan atseginak, bestetan gogaikarriak. Liburu honetan murgildu ahala, arraintxoek jakin-mina izatetik triste izatera eramango gaituzte, baita ausart, lotsati, harro, haserre, eta, azkenik, zoriontsu izatera ere. Pozik liburuak aukera ematen digu guztioi, helduoi zein txikioi, gure sentimenduak ikusteko, gozatzeko eta haiei buruz mintzatzeko.

ENTZUN

Homenatge a les Grans Dames del Blues

La Teoria del Taburete. (Gaztelupeko Hotsak diskoetxea)

La Teoria del Taburete taldeko kideek, emakumeen bluesaren mundua ez dela bere osotasunean ezagutzen kontuan hartuta, generoaren aitzindari izandako emakumei merezi duten omenaldia egitea pentsatu zuten.

Homenatge a les Grans Dames del Blues diskoan bertsoiez gain (Bessie Smith, Ma Rainey, Billie Holiday,...), "Big Mama" abesti originala jasotzen da. Era akustikoan blueswoman-ei Kataluniatik egindako omenaldia.

Urte berri on, amona!
Telmo Esnal

Komedia beltza. Joxemarik Mari amona erresidentzia batean sartuko du familiaren egoera ikusita, bere emaztearen bizkar arituko da. Ekintza aurrera eraman ahal izateko Kintxo suhiaren laguntza izango du. Amonaren

Alzheimerra dela eta ezertaz ez dela ohartzen pentsatzen badute ere, guztiaren jakitun izan eta Kintxo ez du barkatuko. Ezustekoz beteriko amaiera batera eramango gaitu istorioak.



Irailaren 16tik urriaren 7ra bitarteko

hitzorduak

Azoka

XIII Garagardo Festa. Irailak 16, 17 eta 18. Tolosa, Zerkausia. Garagardo dastaketa eta kultur ekitaldiak.

"Ibarra, azoka eta piparra". Ibarra. Emeterio Arrese eta San Bartolome plaza. Irailak 25, igandea. 10.00-14.00 bitartean.

Ospakizunak


III. Euskal Herria Eguna. Ibarra. Irailak 17, larunbata.

Kalejira, hamaiketako, herrien arteko ginkana, bazkaria, LipDub, afari-merienda eta Dolce Tangana eta Bide Bakarra taldeen kontzertua.

Antzerkia

Klowntrosfobia mendian. Tolosa, Aldabako frontoia. Irailak 30, ostirala. 20.00-21.00 bitartean. Helduentzako pailazo emanaldia. Mari Gorritxu pailazoa hirian bizi da. Bere psikoa-nalistak, Jose Artistak, mendira joatea gomendatu dio. Mari Gorritxuk ordea ez du mendia ezagutzen ez eta natura

ulertzen (isiltasuna, zuhaitzak, animaliak.....). Azken batean, naturarekin ezin ulertuz lasaia-tu ordez erotu egingo da Mari Gorritxu.



Erakusketa

Titiriteros de Binefar. Tolosa. Topic. Urriaren 10a bitartean. **Tolosako egutegirako argazki erakusketa.** Tolosa. Aramburu Jauregia. Irailak 23-urriak 9 bitartean. Bozkatzeko aukera, saridunak Publikoa-ren Saria eskuratuko du.

Odol

ateratzeak

Tolosako Kultur Etxean (Irailak 19, astelehena. 18.30).

Amezketako Sendagilearen kontsultategian (Irailak 20, asteartea. 18.30).

Berastegiko J.A. Muñagori eskolan (Irailak 20, asteartea. 18.30).

Udako

liburutegia

Tolosa. Usabalgo solariuma. Irailaren 24a bitartean. Arratsaldean. 15.00-19.00 ordutegian.

Tolosa Kantari

Tolosa. Agirre doktorearen plaza (Tontokale). Irailak 24, larunbata. 12.00-13.00 bitartean.

Hitzaldia

Alzheimerraren munduko egurenaren inguruko hitzaldia. Irailak

29, osteguna. 18.00-20.00 bitartean, Tolosako Kultur Etxean Afagi elkarteak antolatuta.

Badator zikloia!



Biribil Zirkoren "Noche de fuego". Irailak 9, larunbata. Tolosako Plaza Berrian, 19.30ean.

Eduarne Agirrezabalaren "Ogiyik karri etzun semea". Irailak 22, osteguna. Tolosako Orbela Tabernan, 22.30ean.

Badut, Pollo Rosa Produzioak eta May Gorostiaga. Irailak 23, ostirala. Tolosako Iratxo Tabernan, 22.30ean.

Kabareta: Berastegiko Antzerki Taldea, Tic-Tac, Jon Magik eta Suyanema. Irailak 30, ostirala. Tolosako Kultur Etxean, 22.30ean.



Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharrekiko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Tamainak ez dio axola: merkataritza elektr. ETE-entzat	2011.09.19	8
Lorezaintzako proiektuak diseinatu, irudikatu...	2011.09.26	280
Optikako laguntzailea	2011.10.03	160
Photoshop (Jabekuntza eskola)	2011.10.03	16
Baratzetan lan egiten ikasi	2011.10.04	14
Komikigintza tailerra (Jabekuntza eskola)	2011.10.11	160

Bilatzen ari zarenean aurkitzen ez baduzu, prestakuntza ibilbidean laguntza eta orientazioa behar baduzu... Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa

Institutuko ORIENTAZIO zerbitzuak lagundu zaitzake. Harremanetarako beste 3 bide eskaintzen dizkizu:

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678 • info@ikastn.com • Institutuko bulegora etorritz.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 16
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Larunbata, 17
Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Igandea, 18
Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Astelehena, 19
Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Astearte, 20
Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Asteazkena, 21
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Osteguna, 22
Etxebeste, Jesus
Gernikako arbola, 3
Tolosa

Ostirala, 23
Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Larunbata, 24
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Igandea, 25
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astelehena, 26
Olarreaga I.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Astearte, 27
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Asteazkena, 28
Iturrioz I.
Euskal Herria, 3
Ibarra

Osteguna, 29
Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Ostirala, 30
Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketak-Albartzisketa-Alburtur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 349
11ko irailak 16



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA
KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Lan-protetik tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

Etxebizitza

• 60m²-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berri-
tua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tf: 686969112



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Oporraldiaren ostean gogotsu ekingo diozu lanaldiari. Energia gainezka egunerokotasuneko arazoak konpon-
tzen jardungo zara. Garai bizia harre-
man pertsonalei dagokionean.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Zorteak mimatu egingo zaitu; egoera ezin hobean aurkitzen zara. Hori dela eta, zure partetik gutxi jarrita ere egun zoragarriak igaroko dituzu. Izan ere, datozen egunotan ametsak egi bihurtu daitezkeela pentsatuko duzu behin baino gehiagotan.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Argi zein itzalen garaia dator, beste era batera esanda, eragozpenen denbora tarteak izango da. Hala ere, ez zaitez gehiegi larritu izan ere oraingoan patuak indar gehiegi izango du, zure aingeru begiralea bilakatuz.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Garai ona; gatazka eta egikaritez beterik. Ez-ohiko borrokarako grina eta abenturarako jarrera azalduko dituzu. Hala ere, kontuz zure jenioarekin, sutan jartzeko arriskua duzu. Indarra ondo bideratu eta arlo konstruktibora zuzendu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Zortea aldeko duzu baina hala ere ez dira egun errazak izango; borroka eta oztopo garaia dator, baina pazientzia eta irmotasunez aurre egingo duzu. Azpizokoen biktimak bilaka zaitezke. Garai liskartsua dator baina baita zortekoa harremanei dagokionean.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Egun hauetan egoera alde jarriko zaizu, zortea aldeko duzu eta gainera pertsona baten laguntza ere jasoko duzu. Energia gainezka egonik, oztopo eta eragozpenei erraz aurre egingo diezu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Bidea harriz beterik aurkitu eta albortzen hasi beharko zara, gehien bat alor ekonomiko eta profesionalari dagokionean. Egia esan eskuratu nahi duzun horrek bere esfortzua eskatuko dizu.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Zortea eta zorientasuna alor guztietan. Hala ere, honek ez du esan nahi egunotan arrakasta besterik izango duzunik; erronka bateri baino gehiagori aurre egin beharko diozu. Egia da, egoera horiei aurre egiteko inoiz baino indar gehiago izango duzula.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Urteko garairik garrantzitsuen zeharkatzea zoaz. Izan ere, datozen egunetako gertaerak inoiz baino nabarmenagoak izango dira, onerako zein txarrerako. Baliteke hauek zantzu sakonak uztea.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lan kontuak aldeko dituzu. Zortea ere zure alde dago ekiten dituzun ekintzetan. Helburuak eskuratu ahal izateko indarra, zuhurtzia, irmotasuna eta iraunkortasuna ez zaizkizu falta izango. Berezkoa duzun adimen eta ahaleginez egingo duzu aurrera.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Arrakasta alor materialari dagokionean. Garai oparoa amaitu zaizula pentsatzen hasi zara baina ez ezazu horrelakorik sinetsi; kontu bikaina iristek dago. Garai pribilegiatu eta berezi batean murgildurik zaude.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Kontuei bere tokia hartzen kostako zaie, dena nekezagoa izango da egunotan. Ametsak egi bihurtzen denbora luzea behar izango du. Maitasun eta familia giroan ere berdina gertatuko da.



JANTZIAK OSKI oiñetakoak

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264



3 hilabetetik 16 urte arte



SUPER EKO

SUPERMERKATUA

*Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua*

<http://twitter.com/supereko4>



*etorri, gure
produktu berriak
ezagutuko dituzu*


Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

MAITRIKULA

Aitzol
Udal
Euskaltegia

irailaren 18 arte
bulego ordutegia
09:00-13:00 / 16:00-19:00

MAILA GUZTIAK
AURREZ AURREKO TALDEAK
AUTOKASKUNTZA
TTTULU HOMOLOGATUAK



Rondilla 34-B, 3.a
20400 Tolosa
tel. 943 651 006 - 943 652 343
www.udaleuskaltegiak.net
aitzolue@tolosakoudala.net

Gertu...

T O L O S A K O
H I L E T A Z E R B I T Z U A K
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

24 H..

